

ORKESTRA LURTARRA

ZINESKOLA 2022/2023
USTIAPEN PEDAGOGIKOA



Maialen Idoate (HN), Maitane Eiheramuno (EKE), Elise Dilet (IKAS)

1. Ustiapen pedagogikoaren **helburuen** aurkezpena

2. **Ulermenaren lantzeko urraspide pedagogiko** baten proposamena

3. **Jarduera eta euskarri** batzuen proposamena

- Filma ikusi **aitzin**
- Filma ikusi **ondotik**

1. HELBURUAK

IKASLEENTZAT:

- ▶ Zinemara joanez esperientzia kulturalaren **bizitzea**
- ▶ Zineman ikusiko duten «*ORKESTRA LURTARRA*» filmaren **ulertzea**
- ▶ Kultura musikalaren **aberastea**
- ▶ Ahozko eta idatzizko hizkuntza gaitasunen **lantzea**

IRAKASLEARENTZAT:

- ▶ Filmaren ulermenaren lantzea **oztopo linguistikoak** identifikatuz
- ▶ Ikasleen **kultura zinematografikoaren eta musikalaren aberastea**
- ▶ Ikasleen **izpiritu kritikoaren lantzea**

2. ULERMENAREN LANTZEKO URRASPIDE PEDAGOGIKOA

IKASLEEK:

- **Zer ulertu behar dute? (NOR/K? NON? Zer?)**
(Ulermenerako estrategiak eraiki)
- **Zer laguntza beharko dute ikasleek euskara/z ulertzeko eta adierazteko?**
(Tresna linguistikoak: hiztegi eta egitura bereziak)
- **Ikasleak nola lagun beren iritzien edota pentsamoldeen eraikitzen?**
(Garaiko eta gaur eguneko bizimodu/bizipenak konparatuz, gogoetatuz)



NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

FILMEAN/PASARTEETAN

Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:

Bideo/Testu/Argazki/Irudi/
audio...

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-



Euskarri / pasarte bakoitzeko
hiztegi eta egitura bereziak
ezagutarazi eta erabilarazi

-
-

NON gertatzen da?

Non kasua

-n da/dira.
-
-

FILMEAN/KAPITULUAN
Oinarrizko baliabideak:
Bideo/Testu/Argazki/
Irudi/audio...

NOR dira protagonistak?

Nor/Nork/Norekin kasuak

- da / dira.
-k du / dute.
-ekin du/dute
-ekin da/ dira.

ZER gertatzen da?

- da / dira.
-du / dute.
-

NOIZ gertatzen da?

Noiz/ Nondik / Nora kasuak

-n da/ dira.
-n du/dute.
-

NOR dira
protagonistak?

-
-

Izpiritu kritikoa
nola eraiki?

NON gertatzen da?

-
-
-

ZER gertatzen da?

-
-
-

FILMEAN/KAPITULUAN

Oinarrizko baliabideak:

Bideo/Testu/Argazki/
Irudi/audio...

NOIZ gertatzen da?

-
-
-

Iritziaren adierazteko, azaltzeko
eta argumentatzeko hiztegi eta
egitura bereziak ezagutaraztea
eta erabilaraztea:

Erlatiboa :

- *Pentsatzen dut.... dela/duela*
- *Uste dut.....*
- *Ados naiz /Ez naiz ados.*
- *.....lako/baita.*

Ikasleen iritzi/emozioen biltzeko galderak:

- Zer diozu gai horri buruz? Pertsona horri buruz? Gertakari horri buruz?...
- Gaur egun ikusten duzunarekin konparatuz, zer erran dezakezu/erraten ahal duzu?

FORMA

Filma hitz bat
baltz.

EGIA

Zer soinu,
musika entzuten
da filmean?

ISTURIA

Gizenburua
azaltzen ahal
duzu?

EMOZIOA

Emozio azkar
bat sentitu
duzu?
(alaitasuna,
tristura,
beldurra,...)

Saio guzietako urraspidea:

- **1. urratsa:** Hiztegi eta egitura berriak ikasleei ezagutaraztea eta erabilaraztea
- **2. urratsa:** Ulermenaren lantzeko ikasleak 4 galdera nagusiei erantzunaraztea (Nor? Noiz? Non? Zer?)
- **3. urratsa:** Idatzizko aztarnaren eraikitzea
- **4. urratsa:** Eztabaidaren sortzea, ahoz (iritzien adieraztea, ideien trukatzeara, argumentatzea...)

1. urratsa (Talde osoan edo talde ttipitan)

- **Irakaslearen betebeharrak:**

- Ulermenari oztopoak sortzen ahal dizkioten hitz eta egituren **aitzinetik identifikatzea**
- Hitz eta egitura horien **ezagutzera ematea:**
 - Afixa batean: erranahia, itzulpena edota irudi-argazkiak proposatuz

- **Ikasleen betebeharrak:**

- Hitz eta egituren ulertzea eta **erabiltzea:**
 - Asmakizun eta jokoen bitartez (altxor joko/nor da nor?/ Kim joko....)

2. urratsa (talde ttipitan)

- **Irakaslearen betebeharra:**

- **Ulertzeko estrategiak ikasleekin esplizitatzea:**

Testu/bideo/irudi/audio... baten ulertzeko zer jakin behar dugu?

- **Ikasleen betebeharrak:**

- **4 galdera nagusiei erantzuten jakitea**

- Non gertatzen da?
- Noiz gertatzen da?
- Zer gertatzen da?
- Nor dira protagonistak? (Nork/Nor)

- **Lan modalitateak:**

Taldeka ikasleek galdera bati erantzun beharko diote idatziz.

Galdera aitzinetik ezagutzen dute. Lan euskarria **xede zehatz** batekin irakurri/entzun eta aztertuko dute.

3. urratsa (Talde osoan)

- **Irakaslearen betebeharra:**

- Talde bakoitzari hitzaren ematea eta erantzunak ezagutzera ematea
- Erantzunen egiaztatzea oinarrizko euskarrian bermatuz

- **Ikasleen betebeharrak:**

- Taldeka beren erantzunen azaltzea, argumentatuz
- Besteen erantzunekin adostasuna/desadostasuna adieraztea

- **Lan moldeak:**

Ikasleek talde handian lan egingen dute, ahozkoan.

Erantzunak egiaztatu eta, irakasleak afixa handi bat osatuko du arbelean (cf 8. diapoia)

4. urratsa (Talde osoan edo talde ttipitan)

Landu nahi den pasarte edo gaiaren arabera

- **Irakaslearen betebeharra:**

- **Ikasle bakoitzari bere iritziaren eskatzea**

- **Iritziaren adierazteko hiztegi eta egitura berezien lantzea** (*pentsatzen dut*
dela/direla/duela/dutela... zeren bait... /lako. / Ados naiz/ Ez naiz ados
Ikerrekin,lako. /zerenbait..... .

- **Ikasleen betebeharrak:**

- **Bakoitzak bere iritzia adieraziko du hiztegi eta egitura egokiak erabiliz.**

- **Lan moldeak:**

Ikasleek talde osoan lan egingen dute, edo talde ttipitan, ahoz.

Irakasleak arbeleko afixa handia osatuko du ikasleen iritziekin.

3. JARDUERA ETA EUSKARRI BATZUK

- ▶ Filma ikusi aitzin
- ▶ Filma ikusi ondotik



Filma ikusi
aitzin

Sekuentzia baten proposamena

Ikasleak proiektuan sarraraztea:


«Laster filma baten ikustera joanen gara. Filma euskaraz izanen da. Horregatik, eta ulermenaren errazteko, aitzinetik filmaren pasarte/ezaugarri inportanteak aipatuko/landuko ditugu.»

**Filma ikusi
aitzin**

2. Ulermenaren eraikitzea: hipotesien egitea

(Oharra: saioen artean ez da baitezpada kronologiarik beraz nahi diren ordenan har daitezke eta haien arteko hautuak ere egin daitezke.)

1. saioa: Sinopsiaren ulertzea	2. saioa: Pertsonaia nagusiak	3. saioa: Afixaren irakurtzea	4. saioa: Izenburuaz laketzea (Filma eta liburua)
5. saioa: Zer gertatzen da?	6. saioa: Non/Noiz gertatzen da?	7. saioa: Musika: sail aristikoa	8. saioa: Umorearen tokia



Musika eta tresnak



Izenburua



Pertsonaiak



Trailerra



Umorea



Liburua

Filma ikusi
aitzin

1. saioa: Sinopsiaren ulertzea

Lan moldea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde handian Irakurketa	- Filmaren sinopsiaren testuaren irakurtzea	Ikasleen ulermenaren erraztea
Talde-lana		Hitzartzeen kudeatzea
Talde handian	- Irudi irakurketa - Irudien eta testuaren arteko loturen egitea - Informazio nagusien zerrendaren idaztea	Idatzizko aztarna kolektiboaren osatzea

1. saioa: Sinopsiaren (egokitua) ulermena

Haurra zelarik, Manu maitemindu zen Stella Panini Pianista Handiarekin, eta hura ezagutzea zuen amets. Horretarako orkestra bat osatuko du, Stefano Salegi, manager bilakatuko den pertsonaiaren aholkuari jarraikiz. Baina ameslaria izateaz gain Manu ulertezina ere bada, bere instrumentuaren berezitasunetik hasita: “Ello” deitzen duen erratz soila. Orkestra berezi bat sortu nahi du, kontrabaxu-jotzaile batekin, zeinak bizkarrezurrean azkura sentitzen baitu zainetan dagoenean, naturaz gaindiko usaimena dutenak bi anaia bikirekin, eta bibotedun perkusionista batekin. Gainera, eskaileraren ikuskizuna egiten duen ahuntz batek laguntzen ditu.

SINOPSIAREN ULERMENA ERRAZTEKO:



Manu, haurra zela, maitemindu zen **Stella Panini** Pianista Handiarekin, eta hura ezagutzea zuen amets.

Horretarako orkestra bat osatuko du, **Stefano Salegi**, manager bilakatuko den pertsonaiaren aholkuari jarraikiz.



Baina Manu, ameslaria izateaz gain, ulertezina ere bada, bere instrumentuaren berezitasunetik hasita: «Ello» deitzen duen **erratz soila**.

Orkestra berezi bat sortu nahi du, **kontrabaxu-jotzaile** batekin, zeinak besapetako azkura sentitzen baitu urduri dagoenean,



naturaz gaindiko usaimena duten bi **anaia bikirekin**,



eta **perkusionista** bibotedun batekin.



Gainera, eskaileraren ikuskizuna egiten duen **ahuntz** batek laguntzen ditu.



NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

FILMEAN/PASARTEETAN
Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:
SINOPSIA

ZER gertatzen da?

-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-

Filma
ikusi
aitzin

2. saioa: Pertsonaia nagusiak



Pertsonaia bakoitzaren deskribapena

1. Lan moldea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde txipitan	- Testu baten irakurtzea - Ulertu dutenaren marraztea: nolakoa da pertsonaia?	Testuen proiektatzea Taldez talde pasatzea ulermenaren errazteko
Talde handian	- Laburpenaren idaztea: nolakoa da pertsonaia (Izaeraren ezaugarriak/bakoitzaren en trbak)	Bilanaren gidatzea Aztarna kolektiboaren osatzea

Lan euskarri baten proposamena

Pertsonaiaren izena

Pertsonaiaren marraztea: **Nolakoa** da ...?
(deskribapen fisikoa bereziki)


Nolakoa da?
(deskribapen morala bereziki)
Adibidez:
- Zer da haren traba?
- Zer musika tresna jotzen du?

MANU

Manu erratz-jolea da. Bai, erratz-jolea! Ausarta eta baikorra, oztopo guztiak gainditzeko prest dagoen ameslaria da.

Bere instrumentu bereziarekin musika alorrean hegan egin nahi duen bihotz oneko mutila da.

Maitemindua da eta Stella Panini pianista ezagutzeko asmoz, orkestra gailurrera eramango du gure protagonistak.



OSOKI

Manuren lagun mina da Osoki perkusionista.

Gorputz txiki horren barnean, geldirik egon ezin duen artista handi bat bada.

Agertokiari beldurra dio baina gehiegi pentsatu gabe aitzina egiten du beti. Osoki kexatia da oso, nahiz eta denek anitz maite duten.




KIRIKI

Hori txori saltseroa hori, Kiriki!

Nahiz eta isil-isilik egon, taldekide garrantzitsua da eta perkusionista bikaina.

Osokirekin batera bikote xelebreaosatzen dute.



PERFUMETTI ANAIK

Txukun-txukun doaz beti Perfumetti anaiak.

Usain goxoa eta garbitasuna ezinbestekoa dute.

Zirkuko musikariak izan ziren, eta orain Presidente ahuntzarekin abian dira ametsak betetzeko helburu argiarekin.



ALDIKA

Kontrabaxua jotzen duen neska kaskagorria da Aldika. Maitabera eta sentikorra.

Argia da eta inguruan gertatzen denari adi-adi behatzen dio.

Zainetan ezartzen denean, besapetako azkurak zenbaitetan zailtasunak sortzen dizkio.

Horregatik, kontzertuetan argi ibili behar dute, edozein mementotan Aldikak larrialdi bat ukaiten ahal baitu.




KROKANTI

Hamaika izozki-zapone saltzen dituen kantari lirikoa da Krokanti.

Nahiz eta bere bibote handi horrek serio itxura ematen dion, ahoa ireki ahala aingerua dirudi.

Familia utzi eta abenturan joatea erabaki du, tristura sentimendu guztiak gaindituz.



SALEGI

Luxua gehiegi gustatzen zaion pertsonaia dugu Salegi.

Horrek anitzetan arriskuan jarri du bere bizitza. Kasu egin behar da Salegiren iruzur eta trikimailuekin.

Ez zaitez gehiegi hurbildu eta kasu hark erraten duena sinisteaz.



STELLA PANINI

Musikaren izar horrek erhiak piano gainean jartzen dituenengan denak zur eta lur gelditzen dira.

Bere piano unibertsoan murgildua bizi da, inguruan gertatzen denari arreta guti eginez.

Maitemindua da. Bere ametsak maite ditu.




AISHA

Manuk eta Aishak gau luze asko partekatzen dituzte lanean. Baina ez bakarrik lanean.

Aisha Manuren kontakizunetan murgilduko da haren ametsetako abenturen ezagutzeko.

Aishak erritmoa eta doinua jarriko dizkie Manuren ametsei, errealitate bilaka daitezzen!





NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

.... FILMEAN
Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:
PERTSONAIEN DESKRIBAPENA

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-

Filma ikusi
aitzin

3. saioa: Afixaren irakurtzea

- Sinopsiari eta pertsonaiei buruzko lanekin egin daitezkeen loturak

Lan moldea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde handian/ Talde txipitan	- Afixaren behatzea eta deskribatzea - Pertsonaien deskribatzea Ohartarazi batzuk falta direla: Stella/Aisha) - Sinopsiari esker ulertu dutenaren azaltzea - Izenburuaren inguruko hipotesiak: ORKESTRA LURTARRA?	Afixaren proiektatzea Galderen egitea Bilanaren gidatzea eta afixa kolektiboaren osatzea


Izenburua



SINOPSISIA

Haurra zelarrik, Manu maitemindu zen Stella Panini Pianista Handiarekin, eta hura ezagutzea zuen amets. Horretarako orkestra bat osatuko du, Stefano Salegi, manager bilakatuko den pertsonaiaren aholkuari jarraikiz. Baina ameslaria izateaz gain Manu ulertezina ere bada, bere instrumentuaren berezitasunetik hasita: “Ello” deitzen duen erratz soila. Orkestra berezi bat sortu nahi du, kontrabaxu-jotzaile batekin, zeinak bizkarrezurrean azkura sentitzen baitu zainetan dagoenean, naturaz gaindiko usaimena dutenak bi anaia bikirekin, eta bibotedun perkusionista batekin. Gainera, eskaileraren ikuskizuna egiten duen ahuntz batek laguntzen ditu.

Pertsonaiak





NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

.... FILMEAN
Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:
AFIXA

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-

Filma ikusi
aitzin

4. saioa: Izenburua

Filmaren eta liburuaren arteko loturen egitea

Ian modalitatea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde handian/ Talde ttipitan	- Afixaren behaketa: izenburuaren kokapena - Liburuaren azalaren behaketa: Izenburuaren kokapena - Liburuko pasarte baten irakurketa - Konparaketari esker hipotesien egitea	Afixaren proiektatzea + liburuaren azala ikasleei erakustea. Liburua eskuz esku ibiliko da. Galderen egitea : <i>Zuen ustez, orkestra lurtarra da ala estralurtarra ? Zergatik?</i> Bilanaren gidatzea eta afixa kolektiboaren osatzea



- « Orkestra lurtarra da. »
- « Orkestra... estralurtarra? »
- « Ez al duzu entzuten, K emakumea? Estralurtarra ez... Justu kontrakoa: or-kes-tra lur-ta-rra... Mundu honetakoa alegia! »

Ikus liburuaren 68. orrialdea



NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

.... FILMEAN
Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:
IZENBURUAK

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-
-

Filma
ikusi
aitzin

5. saioa: Zer gertatzen da?

Trailerraren lantzea /afixarekin eta sinopsiarekin
loturen egitea

Ian modalitatea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde handian	- Trailerrari behatzea - Erranaldi gakoan aztertzea	Euskarri desberdinak ikasle taldeei banatzea
Talde txikian	- Irudiak erranaldi gako egokiei lotzea	Galderen egitea: <i>Zer izanen dira gertakari nagusiak?</i>
Talde handian	- Sinopsiaren, afixaren, izenburuaren eta pertsonaien deskribapenen arteko loturen egitea	Bildumaren gidatzea eta afixa kolektiboaren osatzea.

<https://loturafilms.eus/orkestra-lurtarra/>

ERRANALDI GAKOAK

GAILURRERAINO
HELDUKO DEN **ORKESTRA** BAT


MUSIKAREN HISTORIA
IRAULIKO DUEN **ORKESTRA**

LUXUA ETA **GLAMOURRA**

MAITASUNA

MUSIKA **MAITATZEKO**
MODU **BERRI** BAT

ERRANALDIEI DOAZKIEN IRUDIAK





NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

.... FILMEAN
Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:
TRAILERRA

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-



6 saioa: Non/Noiz gertatzen da? Pasarte gako baten aztertzea

- Bideoa: Orkestra Lurtarra museoan, New York

https://drive.google.com/drive/folders/1eUWcrhQhL4K56eAPirrM_blyMhfescRL

Lan moldea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde handian	- Pasarteari behatzea	Euskarri desberdinak ikasle taldeei banatzea
Talde txipitan	- Transkripzioaren irakurtzea	Galderen egitea: <i>Non dira Manu eta Aisha?</i> <i>Zertan eta non ari zen aspaldi Manu?</i>
Talde handian	- Irudietan eta transkripzioan argibideen aurkitzea eta galderei erantzutea	Bildumaren gidatzea eta afixa kolektiboaren osatzena
	- Erantzutea eta argumentatzea	

NATURAL HISTORY MUSEUM NEW YORK GAUR EGUN



Manu eta Aisha museoko langileak dira.



Manuren kartera erortzen da.
Aishak ikusten du.



Manuren diru zorroan argazki bat
bada...





Aisha: «E!! Zu zara hemen?»

Manu: «Ni nintzen...»

Aisha: «Eiii Manu hauxe jakin izan banu garbitzaile bihurtuta zeure burua salbu! Musikari bazara zertan denbora galdu?»

Manu: «Aspaldiko kontuak dira, Aisha.»

Aisha: «Desio duzun hura da iturriko ura, ametsak libre dira, jarri haiei begira! Bila doazenentzat kantatzen dut denetan. Etxe zuloan ez geratu benetan!»



Aisha: «Tira Manu! Kontaidazu, denbora daukagu eta.»


Manu: «Orain ez Aisha.»

Aisha: «Iñoiz ez didazu zutaz ezer kontatzen...»


Manu: «**Europar** hasi zen dena, **Euskal-Herrian**, nire herrian.»

Aisha: «Europar? Orkestra bat zeneukan?»

Manu: «Bai.»



➤ Irudi konparaketa:



➤ Irudi konparaketa:

Lan moldea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen egitekoak
Talde handian	- Irudi desberdinei behatzea eta oharren egitea: «Manu da. Duela aspaldi eta gaur egun.»	Irudi desberdinak ikasleei erakustea (proiektatuz edo afixatuz) «Zer erraten ahal duzue? Nor ote da?»
Talde txipitan	- Galderei erantzuten entseatzea idatziz, hipotesiak eginez «Uste dugu Manu dela, aspaldi ile gorrixkak zituen, gaur egun aldiz, ile grisak ditu eta burusoila da.»	Galderen egitea: «Nola badakizue Manu dela? Erantzunak justifikatu behar dituzue.»
Talde handian	- Hipotesien gurutzatzea eta adostea	Bildumaren gidatzea eta afixa kolektiboaren osatzen



NOR dira protagonistak?

-
-
-
-

NON gertatzen da?

-
-
-

.... FILMEAN
Oinarrizko baliabideetan
bermatuz:
BIDEOA: Museoan +
transkripzioa

ZER gertatzen da?

-
-
-
-

NOIZ gertatzen da?

-
-
-
-

Filma ikusi
ondotik

Ikasleen iritzi/pentsamoldeen adierazpenak

Irakasleak karta bedera banatzen die ikasleei filma ikusi aitzin.
Filma ikusi ondoan, ikasleak kartan ageri den galderari
erantzuten entseatzen dira dira.

ISTORIO MISTERIO

Beste eszena bat
gehituko zenuke?

ISTORIO MISTERIO

Filmarekin
elementu
amankomunak
dituen obra bat
izendatzeko ahal
duzu?

ISTORIO MISTERIO

Filmaren
pasarte bat
antzezten ahal
duzu?

ISTORIO MISTERIO

Beste bukaera
bat asmatzen
ahal duzu?

EMOZIOAK

Zinema gelan
endoan
zenituztenek ber
gauzak sentitu
zitezutela uste
duzu?

EMOZIOAK

Zer alertu duzu
filmaz?

EMOZIOAK

Zer iruditzen
zaizu afixa?

EMOZIOAK

Publikoaren
erreakzioak
imitatu

BEGIAK ETA BELARRIAK ADI

Non gertatzen
da filma,
ekintza?

BEGIAK ETA BELARRIAK ADI

Argia, nolakoa
da filmean?

BEGIAK ETA BELARRIAK ADI


Zer soinu,
musika entzuten
da filmean?

BEGIAK ETA BELARRIAK ADI

Filmean
garrantzitsua
den puska bat
izendatu


Hipotesien egiaztatzea

- Saio guzietan eraiki diren aztarna kolektiboak, osatuko, moldatuko eta egiaztatuko dira.



Hipotesien egiaztatzea

- Orkestra lurtarraren jira/bidaia:





Parisen...

Aspaldi taberna batean...

Bronx auzoan, Ameriketean

Euskal-Herriko geltoki batean...

Itsasontzian

Zahar etxe batean...

Talentu berrien lehiaketan

Saturno tabernan

Kontzertuan...



Hipotesien egiaztatzea

► Orkestra lurtarraren jira/bidaia:

1



Aspaldi taberna batean...

2



Euskal-Herriko geltoki batean...

3



Zahar etxe batean...

4



Parisen...

5



Talentu berrien lehiaketa

Itsasontzian

6



8



Kontzertu bikaina...

9



Saturno taberna

7



Bronx auzoan, Ameriketan

0



GAUR EGUN

Filma ikusi
ondotik

Ulermenaren sakontzea

7. saioa Musika arloa

- ▶ Musika tresnak
- ▶ Musikariak: EH-ko erreferentziak
- ▶ Musika motak
- ▶ Filmeko kantuen bideo eta transkripzioak
- ▶ Arlo artistikoa
 - ~ Musika eta filma
 - ~ Filmaren kredituak

➤ Musika tresnak

Kontrabaxua

Familia: kordofonoa
/ hari instrumentua

Azpi familia: hari igurtziak

Hariak bibraraztean hotsa ematen du. Kontrabaxua biolinaren familiakoa da baina soinu biziki baxuagoa du. Arkuarekin hariak igurzteaz gain hariak zimikatuz maiz baliatzen da. Musikariak zutik jotzen du, musika-tresnaren ondoan.



Pianoa

Familia: kordofonoa
/ hari instrumentua

Azpi familia: Hari kolpatuak

Teklen bidez etzanik diren hariak joz funtzionatzen du pianoak. Normalean 88 tekla ditu, 52 txuriak eta 36 beltzak. Pianoaren barnealdean, tekla zuriak eta beltzak mailu txiki batzuekin konektaturik dira. Pianoko teklak sakatzen direnean, mailuek hariak jotzen dituzte; orduan hariak bibratzen hasten dira eta soinuak sortzen dituzte.



Musika tresnak

Bateria



Familia: perkusioak


Perkusiozko musika-tresna multzo bat da, nagusiki danborrez eta txindatez osatua. Bateria jotzeko bi baketa erabiltzen ditu bateria-jotzaileak eta pedalen bidez oinekin bateriaren hainbat elementu baliatzen ditu.



Marakak

Familia: perkusioak

Maraka perkusiozko musika tresna da, jatorriz Karibekoa. Berez kuia edo kalabaza lehorrez eginak daude, edo harritxoaz eta alez beteriko koko oskolez. Egun, larru, zur edo plastikozkoak ere egiten dira. Sarrien binaka erabiltzen dira.



Kongak

Familia: perkusioak

Azpi familia: Mintz-perkusioak

Eskuz kolpatzen dira. Haien larruaren tentsioa besoaren presioak doitzen du, eskuek jotzen bitartean.



Musika tresnak

Saxofoia

Familia: Aerofonoak /
haize-instrumentuak
Azpi familia: zurezkoa



Metalezkoa da, eta hodi mehe bat du, errektangularra eta instrumentu guztiari buelta ematen dio. Amaieran enbutu bat bezala irekitzen da, kanpaia deitzen dena eginez.



Tronpeta

Familia: Aerofonoak /
haize-instrumentuak
Azpi familia: kobrezkoa



Metalezko hodi zilindrikoa du, bueltetan bildurik. Mutur batean ahokoa du eta bestean hotsa handitzen duen kanpai gisako zabalgunea. Tonu aldaketarako hiru pistoi ditu. Hauek sakatuz aldatzen dira tresnak ematen dituen notak. Jotzeko, bi eskuekin hartzen da. Ahokoa ezpainetan jarriarik haizea botatzen da ezpainak bibraraziz.

Musikariak

Anari



Mursego



Mauriziaren senide
amerikarra (!)




Mikel Anesthesia



Liburuaren egilea

Harkaitz Cano



Musika motak

Rapa

Rap-a edo Hip Hop musika afroamerikar eta hispanoamerikar komunitateek Bronxen (New York, AEB) garatu zuten, 1960ko hamarkada bukaeran. Kantariak musika-erritmo baten gainetik testu errimatuak kantatzen dituzte. Euskaraz ere kantatzen da.

ENTZUN



Rocka

Rock musikak gehienetan erritmo azkarra du eta kasik beti kantaria da nagusi. Usu gitarra elektrikoak, bateria eta baxu elektrikoa badira, eta batzuetan pianoa edo organoa. Musika estilo hori 1950eko hamarkadan agertu zen lehen aldiz Amerikako Estatu Batuetan. Hastapenean “Rock and roll” erraten zitzaion.

ENTZUN

1980ko hamarkadan, **Euskal Rock Erradikala** izeneko estiloa hedatu zen Euskal Herrian. Talderik entzunenak La Polla Records, Hertzainak, Potato, Barricada, Zarama eta Kortatu izan ziren.

ENTZUN



Musika motak

Musika klasikoa

Musika klasikoa asmo artistikoz egiten da. Europako tradizio kulturalari lotua zaio gehienetan. Musika klasikoa konplexua da. Oro har partituretan idazten da, musikariek irakurri eta jo ahal izateko. Musika klasikoa zalu garatu eta aldatu zen XVI. mende bukaeratik XVIII. mende erdialdera. **Mozart** eta **Beethoven** konpositore (musika egile) famatuak dira. Musika mota horretan, instrumentu-familia gehienak izan ohi dira: hari-instrumentuak, haize-instrumentuak, tekla-instrumentuak eta perkusio-instrumentuak.

ENTZUN

Opera

Opera musika klasikoaren barneko genero bat da. Arte mota asko nahasten ditu: musika, kantua eta antzerkia bereziki. Operan, kantariek istorio bat kontatzen dute agertoki edo eszenan, antzerkiko aktoreek egiten duten gisan. Gainera, orkestra batek musika jotzen du, eta balleta edo beste dantza mota batzuk ere interpretatzen dira batzuetan. Opera Italian sortu zen, XVI. Mende bukaeraren eta XVII. Mende hastapenaren artean.


ENTZUN

Musika motak

Musika abangoardiakoa

Abangoardismoa tradizioarekin haustura eta berrikuntza aldezen dituzten arte mugimenduen mota da.

Orkestra Lurtarra filmaren kasuan, musika esperimentalaren tresna bitxiarekin lotzen ahal da (jats bat adibidez) edo batere melodiatsu edo goxo ez diren doniuekin



Jazza

Jazz musika mota desberdin asko badira. Jazz mota gehienak inprobisatuak dira, neurri batean bederen.

Jazza afrikar eta europar musikaren nahasketatik sortu zen. Afro-amerikarrek zuten hasi, baina gaur egun mundu guztian da ezaguna. 1917an, New Orleanseko *Original Dixieland Jazz Band* taldeak egin zuen lehen jazz grabaketa. Jazz taldeek musika instrumentu anitz erabiltzen dituzte. Usu bateria, pianoa, baxua, tronpeta, tronboia eta saxofoia erabiltzen dituzte. Jazzean maiz kantari bat ere izaten da.

ENTZUN



Filmeko kantuen bideoak eta transkripzioak

1. Sartzea - [YouTuben](#)
2. Museoan + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
3. Agur Jaunak -
4. *Castinga* -
5. Lehen kontzertua zahar-etxean + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
6. Parisen + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
7. Stella Panini + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
8. Kontzertua itsasontzian + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
9. Rapa New Yorkean + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
10. Arrakasta + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)
11. Azken rapa + transkripzioa - [Ikasen wegunean](#) - [YouTuben](#)



Filma ikusi
ondotik

8. Saioa: Umorearen tokia

- ▶ Hitz-jokoak
- ▶ Titanic / anti-titanic edabea

➤ Hitz-joko (batzuk...):



Tren geltoki / tren galtoki




Hor zegok/ Hor duzu




Hor nonbait




Zurrut



Aldika



Noiznahi



Osoki



Krokanti



Lady
Ganga/
Lady Gaga



Goian Bego/ goian-
gainetik begira




Presidente

➤ ***Titanic* transatlantikoa/ anti-titanic edabea**
Filmaren eta liburuaren kapituluaren erkatzea

Orkestra lurterra Ameriketara eramanen duen itsasontzia: ***TITANIC***
transatlantikoa ote? (Cf filma)

Edabe berezia: ***ANTI-TITANICA***, naufragioen kontrako edabea (Cf Liburuaren
15. kapitulua)

Filmeko irudia liburuaren irudi eta testuarekin erkatzen ahalko dituzte ikasleek, berdintasunak eta desberdintasunak azpimarratuz:



Filmean...



Liburuan...

Liburuaren pasartea :

Lurrinetti anaiak urduritu egin zaizkio, ordea: Presidente aztoratu egiten da itsasoan, nonbait.

—Uretara ohituta zegoela uste nuen... bainuontzian garbitzen duzue-eta egunero!

—Bai, baina itsasontzien kulunka eta ziraldok ez zaizkio batere gustatzen. Gainera, zorabiatu egiten da kresalaren usainarekin...Aldika izan zen kexatzen hurrengo. *Titanic* izeneko pelikula bat ikusi zuen bezperan, benetako historia batean oinarrituta zegoena. Sekula eraikitako transatlantikorik handienaren izena zen Titanic, eta filmak, hondoraezin zirudien itsasontzi erraldoi hura nola urperatu zen kontatzen zuen. Titanic-eko orkestrako musikariak azkenera arte musika jotzera derrigortu omen zituzten, itsasontzia izozmendi bat jo eta poliki- poliki hondoratzen zen bitartean

— Ze izen zuen orkestra hark? Iceberg Orkestra? Lurtarrak al ziren?

— Biolinista denak ito zirela uste dut...

— Tira, Aldika, horrelako naufragioak oso aldika-aldika gertatzen dira...

— Ni ez nago osoki seguru —parte hartu zuen Osokik—. Nik ere nahiago nuke barkurik ez hartu.

Musikari demonioak eta haien traumak! Ez al zuten bada jiran atera nahi? Zertara zetorren ontzia hartzeko beldurra orain? Ze abenturazale eskasak ziren haiek? Oilobustien kastakoak? Azkar pentsatu beharra zeukan Manuk, Orkestra Lurtarra itsasoan barrena abiatuko bazen. Musikari guztiak elkartu ditu bilera batean. Kamamila goxo bana prestatu eta banan-banan edanarazi die, misterio aire handiz. Lurrinetti anaiek arazoak izan dituzte, sudurra edalontzian sartu eta edan ezinik geratu direlako; katilu handiago batera aldatu behar izan die Manuk edabea.

— Baina zer da hau?

— Edabe berezi bat: naufragioen kontrakoa.

— A, bai? Nola du izena?

Manuk ez daki zer erantzun. Bururatu zaion disparaterik handiena bota du:

E... ba... zera... *anti-titanic*-a. Ez du hutsik egiten —momentuko ateraldia izan da, baina sinetsi egin diote, bere harridurarako.

➤ Irudien konparatzea + testuaren aztertzea:

Lan moldea	Ikasleen egitekoak	Irakaslearen errola
Talde handian	- 2 Irudiei begiratzea eta oharren egitea, argumentatuz : «<i>Itsasontzi bera da.</i>» «<i>Titanic transatlantikoaren itxura dute.</i>» - Irakasleak irakurtzen duen liburuaren pasartea entzutea eta ulertzen entseatzea - Taula elkarrekin osatzea	Bi irudiak ikasleei erakustena (proiektatuz edo afixatuz) « <i>Zer erran dezakezue?</i> »
Talde handian		Testua irakurtzea, hitz ezezagunen esplikatzea eta galderen egitea: « <i>Zer ote dira irudien arteko berdintasunak?</i> <i>Desberdintasunak?</i> <i>Zer ekarpen egiten digu testuak?</i> »
Talde handian		Aztarna kolektiboaren osatzea

Lan euskarri baten proposamena

Film eta liburuaren arteko erkaketa

Puntu komunak:

2 itsasontziak antzekoak dira.
Titanic transatlantikoa iduri du.
Ameriketara doaz.

Desberdintasunak

Liburuan musikariak (Aldika/Lurrinetti anaiak/Presidente) beldur dira itsasontziz bidaiatzea.

Beldurra kentzeko edabe bat hartzen dute denek.

Krokantiri beldurra kentzeko, Salegik txistu egitea aholkatzen dio.

Humorearen tokia: Titanic/anti-titanic hitz jokoa

Liburuan musikariek « anti-titanic » edabea edaten dute Titanic itsasontzira igotzean beldurra kentzeko.

Liburu/filmeko bertsioa eta egiazko bertsioaren arteko konparaketa

- « *Kapitaina eta biolinistak, azkenak!* » (Cf. liburua 17.kapitulua)
- Filmeko irudiak
- Egiazko Titanic bertsioaren kontaketa:
Maddiren ametsak Iñaki Zubeldiaren liburutik



FILM ETA LIBURUAREN BERTSIO BERDINTSUAK :



Trumoi izugarri batek esnatu ditu bidaiaren erdian. Kapitainak debekatu egin die kamaroteetatik irtetea, eta Crocanti haserre agertu da Manurekin:

-Ziur *anti-titanic*-ak funtzionatzen duela?

Latza da ekaitza. Jostailu bat bailitzan darabil ontzi erraldoia. Intxaur oskol baten eran. Olatuak alderik alde igarotzen dira ontzi-bizkarraren gainetik, kubierto zoru garbi-garbi utziz.



Kolpe ikaragarri batek zuloa ireki du ontzi kroskoan.

Egiazko bertsioa kontatzen duen *Maddiren ametsak* liburuko pasarteak hala dio:

«Gaueko hamabiak laurden gutxitan zelatari batek izotz bloke handi bat ikusi zuen. Ofizial nagusiari esan eta itsasontzia ababorrera biratzeko agindua eman zuen. Maniobra neketsua izan zen eta izebergak hogeita hamar bat metroko alturako izotz-mendi hark, ontziaren eskuineko saihetsa urratu zuen. »

Filmean...



Liburuan...

"KAPITAINA ETA BIOLINISTAK, AZKENAK!"

Kapitainak salbamenduzko ontzia hartu du, larrialdietakoa, eta ihes egin du, Orkestra Lurtarreko kideak eta beste hainbat bidaiari ekaitzaren erdian abandonatuz, hondoratzen ari den barkuan.

"Kapitaina eta bere lagun ilehoriak lehenbizi!", oihukatu du kardantxiloa baino oportunistagoa den kapitain koldarrak, garai bateko kapitaineekin zerikusirik ez duenak.

Maddiren ametsak liburuan...

«Gaueko hamabietan kapitainak ontzi gainean bildu zituen bidaiariak eta lasaitasuna eskatu zien. Bidaiari guztiak salbamenduko txalupetan sartuko zituzten laster batean. Baina berehala jendea estu eta larri ipini zen: ontzian zihoazen erdiak baino gehiagoxeago bakarrik kabitzen ziren txalupetan.»

Lan euskarri baten proposamena

Euskarrien erkatzea

Berdintasunak:

Itsasontzia hondoratzen da.
Musikariek bururaino musika jotzen dute.
Bidaiari batzuk salbatuak dira.

Desberdintasunak :

Liburuan ekaitzak eta kolpe izugarri batek du hondoratzea eragin.

Filman Osokik nahi gabean itsasontziren leihoa hautsi du.

Egiazki hormamendi batek ontziaren saihetsa urratu du.
Kapitainaren jokamoldea: filman lehena da txalupara jauzi egiten.

Umorearen tokia:

Kapitainaren jokamoldearen inguruan: ahate itxurako flotagailua jantzirik, haren koldarkeria azpimarratua da.